

JESUS PARISEN

Godspell otsailean hasia, eta **Jésus-Crist** superstar gerorago, bi teatro eman dira Parisen. Bien gai-ardatza Jesusen zena.

Kritikaren aldetik, oso desberdin hartuak izan dira biak. Iritziak, eguneroko eta aldizkarietan, **Godspell**-en oso alde agertu ziren. Eta ia aho batez, oso gogor epaitu zuten **Jésus-Crist** superstar. Mezu eta teatro bezala, gainera. «Hutsa alde guztietatik» idatzi zuen «Le Monde»-k.

Godspell ikusteko zoria izan dut, eta biziki maitatu nuela aitortu behar diot irakurleari. **Jésus-Crist** superstar, osterara, ezin izan nuen ikusi, eta horregatik ezingo naitzaio irakurleari hortaz mintzatu.

IPAR AMERIKETATIK ETORRIAK

Bi teatroot Ipar Ameriketan sortuak dira, eta handik etorri zaizkigu. Europa zahar hontan askok ez du ulertu ez onartu Jesusen presentatze hori. Inkisizio-zaleak izaki gu nonbait!

Egia esan, teatro-mota hau ongi ulertzeko Ipar Ameriketako kultura-giroa ahanterik ez dago. Jatorriak kondizionaturik eta adierazbideturik bait dator.

Jesusen Mugimendua, soziologiako fenomeno ezaguna da Ipar Ameriketan. «Jesusen Iraultza», «Jesusen zoroak» hor daduzkagu lekuko. Gizarte-aztertzaile guzietatik dienez, ba omen da holako izpiritu-irazartze bat, Jesusenganako itzultze bat gaitzen artean. Denetarik bada mugimendu hortan: batzuentzat Jesus droga bat bailitzan da, beste batzuentzat ekintza-indar bat.

Halere, mugimendu honek badu zenbait puntu berdin eta berezi. Joera hortakoak, gazte dira denak. Eta denek, guti edo asko, ondasunen

axola gehiegirik ez dutenak. Eta batez ere, denek dute instituzioaz mesfidantza ikaragarria. Izan ere, mugimendua hau antikultura bat da. Eta hauxe da hain zuzen zioa: kontrakultura gisan ez bada ez dagoela behar bezala ulertzerik.

GODSPELL EDO MAITA-SUNAREN INDARRA

Godspell-en egile den Tebelak jaunak esan duenez «**Godspell**-ek maitasunaren indarra erakutsi nahi du; datorren amildegitik Gizadia libratu dezakeen gauza bakarra maitasuna dela».

Ingeles zaharrea, **Godspell** izenak «Berri Ona», Ebanjelioa alegia, esan nahi bide du. Baina Michael Tebelak-ek ez zuen filologiazko jatorri hori ezagutzen. Izen horrekin berak Jainkoaren indarra, magiazko indar hori adierazi nahi zuen.

Pop musikaz egindako komeria bat da **Godspell**. Musikaren egilea, Stephen Schwartz gaztea da. Lau edo bost kanta benetan entzungarriak ditu, eta dagoeneko oso zabalduak izen bereko diskoari esker.

Komeriaren gaia, Jesusen Ebanjelioa San Mateoren arabera da. Ebanjelioa bai, baina ez tradizionalki bezala emana. Dantzas, irriz, keinuz, jostatuz, gaurko umorez, kantuz agertarazia da dena.

Hain zuzen, egilearen asmoa zera izan da, alegia: Kristianismua ez dela min-zalea, jantzi beltzezko, puritano, garbizale, penitentzia-bilatzaile, ez jansenista. Andaluziako «nazarenorik» ez duzu han bilatuko, eta bai «clown» batzuk.

Zergatik clown-ak? Zergatik azaltzen dira hamar teatro-emaleak kolore biziz josiak eta mantar bitxiz jantziak?

Jesusen esaldiak irriz eta jostatuz agertuaz, txoke bat

sortu, nahi izan du, egileak. Horregatik esaldi horiek gaurkotuak agertzen dira, egungo gure gizarteari egokituak. Nahi zuen txoke hori, lortu delakoan nago.

Bestalde, gure kulturak burulanari lehenasuna emanaz sendimendua baztertu egin du. Logika nagusitu da gure gizartearen. Baina clown-a bihotzari zuzentzen zaio. Beti esan eta entzun dugu, jadanik gaurko gizona heldua eta nagusia dela. Eta azkenean sinetsi egin dugu, gainera. Komeria honekin, egileak horixe salatu nahi du, hots, haur-izpirituak galdu dugula. Izpiritu horren beharretan gaudela. (Batek baino gehiagok erlijioarekiko errespeturik-eza ikusi du hor).

Eta azkenik, Tebelak-ek gure gizarteak festaren zentzua galdu duela salatzen du. Trajeria batetan bezala tentsioan bizi gara beti, ez dugu umorerik, ez dakigu par egiten. Eta egia esan, antidoto gisa, umorea eta kantua, dantza eta jolasa, dena kolpe batez eskaintzen digu **Godspell**-ek.

Dena da ulerterrez **Godspell**-en. Eta ez da hau bere meriturik tipiena, ene gustorako. Hitzetan agertzen den haurtasun-izpiritu bera ezarri bait du egileak espektakuloan bertan ere.

Bi zati nagusitan banatzen da komeria. Lehenengo alderdian, Jesusen irakaskintza. Munduak izan dituen eta dituen irakasle nagusiak agertzen dira lehenengo momentuan, lehian nork gorago bere dotrina aldarrikatzen. Joan Bataiatzaileak Jesusen sarreara egin ondoren, Jesus beraren irakaskintza erraza, pozgarria, bizia, eguneroko hitzekin entzuten dugu.

Jokaldiaren bigarren zatia, desberdina da. Alderdi honetako zati nagusiak, azken afaria eta Jesusen heriotza dira. Dena fin emana.

Teatro hau, denbora berrea, hiru kontinentetako bost hiri nagusitan jokatu da: New York, Los Angeles, Melbourne, Londres eta Parisen.

Parisen arrakasta izugarria izan du. Bost hilabete eta gehiagok, egunero eman delarik, beterik zegoen beti teatroa. Izan ere, espektakulo gisa, **Godspell**-ek ez du aitzakiarik.


Eta mezu gisa? Ezta ere. Nere uste apalean, halere, esan ezin daiteena da, hor azaltzen den hori dela bakar-bakarrik benetako Jesus, eta ez hor beste nonbait presentatzen diguten Jesus iraultzaile hori. Hitz hauekin ez bada ere, gauza bera esan du Daniélou kardinalak. Nik ez dut uste hala denik, ez dudalako pentsatzen teatro hontan Ebanjelio osoa dagokeenik. Daniélou-ren kritika honek on baino gaitz gehiago ez ote dion egin teatro honen izpirituari nago.



Zamarra-gaiean, Jesusen irudia.



Bi teatroot Ipar Ameriketan sortuak dira.



«Jesusen banda»-k gizartearen akatsak salatzen ditu.

Joan Mari Torrealdai